

Jada ez da fosilik behar neandertalen DNA lortzeko



Atapuercan, lau neandertalen DNA sekuentziatu dute lur-sedimentuak aztertuta. ARG.: Javier Trueba. Madrid Scientific Films.

Science aldizkariak ikerketa esanguratsu baten berri eman du: Atapuercako [Estatuen Galerian neandertalen DNA eskuratzeari buruzko ikerketaren berriak](#) [estatuaren DNA eskuratzeari buruzko ikerketaren berriak](#) [fosilen batera beharrik gabe](#). Aztarnategiko lur-sedimentuak hartuta, han azaltzen diren giza DNAREN arrastoak sekuentziatu dituzte. Neandertalen gorotzen, pixaren eta beste gorputz-fluido batzuen bidez kanporatutako DNA izan daitekeelakoan daude. Ikertzaileen arabera, ikerketa horrek frogatzen du jada ez dela behar hezur fosilik antzinako giza espezieak identifikatzeko.

Estatuen Galeria ez da oso ezaguna, baina hango estalagmita erraldoiei esker hartu zuen izena. Neandertalek erabili zuten, garai hartan kobazuloak sarrera zuzena baitzuen kanpotik. Gero, sarrera estaltzen joan zen, eta kobazuloa guztiz isolatuta geratu zen; *Homo sapiens* espeziea Atapuercara iritsi zenerako, ezin zen kobazuloan sartu. Orduz geroztik, guztiz isolatuta egon da. Hori ezinbestekoa izan da sedimentuetako DNA kontserba zedin.

Hainbat neandertalen DNA aurkitu dute: duela 110.000 urteko gizonetako batena, eta 80.000 eta 105.000 urte inguruko lau emakumezkoena. Lehe-

nengoa azken bi glaziazioen arteko aro epelean neandertalen lerro nagusitik adarkatutako leinu batekoa izan zitekeen; eta emakumezkoak neandertal klasikoaren leinukoak zirela uste dute, berriz klima aldatu eta azken glaziazioan adarkatutako beste neandertal leinu batekoa. Klima-aldaketek izotzik gabeko eremuak sortzea eta taldeak elkarrengandik gertuago edo barreiatuago egotea eragiten zuten, mikroeboluzio lokalak gertatzeko aukera ere klimaren araberkoa izaten zen.

Ikerketa historikoa

Fosilen beharrik gabe, sedimentu hutsetik, giza DNA lortzeko metodologia berri hau Juan Luis Arsuagaren taldeak Antropologia Ebolutiboko Max Planck Institutuko ikertzaileekin egindako elkarlanaren ondorioa da. Asier Gómez Olivencia ikertzaileak historikotzat jo du. Aurreikusten du erreminta oso ahaltsua izango dela paleontologiarako, nahikoa fosil ez aurkitzeak baldintzatu baitu orain arte neandertalen eta beste giza espezieen historia filogenetikoa osatu ahal izatea. "Datuak eskuan, argitu dugu bazeudela bi momentu non neandertalen leinuak dibertsifikatu ziren, eta aukera eman digu Europa mailako panoramika bat eraikitzeko". ●